



# HERRITARRENTZAKO SARBIDE LIBREKO KIROL INSTALAZIOEN ERAIKUNTZA BULTZATZEA



## ZERGATIK?

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan jasotako hainbat proposamenek kirol-espazio jolasgarriak handitzeko eskaera egin dute, eta, beraz, mota horretako instalazioak eskatu dituzte herritarrek. Bestalde, ekipamendu horiek ekipamendu handiek baino kostu txikiagoa dute, eta zeregin garrantzitsua dute erabilera publikoko espazioa sortzeko garaian, hirigintzaren ikuspegitik.

## NORK?

Kirol Zuzendaritza Nagusiak



## ZERTARAKO?

Biztanleen artean bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, eta, horretarako, adin talde desberdinentzat, eta bereziki gazteentzat, sarbide libreko kirola egiteko espazioak areagotzea. Tokiko erakundeentzako dirulaguntzen lerro bat irekitzea, herritarrek sarbide libre izango duten kirol-instalazio berrien sorrera finantzatzeko, hala nola bizikleta zirkuituak, kirol anitzeko pistak, skate eremuak, hainbat jarduera fisiko praktikatzeko espazioak.

## NOLA?

2023an abiatzea aurreikusten den Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planean toki entitateei aisialdiko kirol instalazio berriak eraikitzeke dirulaguntzen lerro zehatz bat sartzea, 200.000 euroko zuzkidurarekin.



## NON?

Bertakoa, Lurraldekoa

## NOIZ?

2022/10/10



200.000€